



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/03/21

Batzar Nagusiak Bilbao Formartegaz lankidetzan ari dira, urritasuna daben pertsonen garapen artistikoan

Bilbao Formarte, urritasun psikikoa eta intelektuala daukien pertsona helduentzako sorkuntza artistikoaren bitartez garapen pertsonaleko programa eskintzen dauen prestakuntza gunea da. Hogei ikasle inguruk Gernikako Batzarretxea bisitatu dabe gaur, Bilboko egoitza administratiboan egingo dan erakusketeagaz zemendian amaituko dan sorkuntza prozesuaren barruan. Erakusketaren gaia, Bizkaiko Batzar Nagusien garrantzia elementu ikonografikoetan irudikatzea izango da. Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentek emon deutse harrerea ikasleei.

Bilbao Formartek arte plastikoen arloan egiten dau behar batez be, eta ikasle bakotzak aukerea dau bere artelana aurrera eramateko, artearen bitartez bere hezkuntzagaz jarraitzeko eta sormena handitzeko. Hainbat jardueraren bitartez, ikasleari hazkundea eta garapena eskaintzen jakoz, maila artistikoan eta pertsonalean, bere bizitza eta autonomia pertsonala hobetzeko.

Jarduera horreen artean, irabazi asmorik bako alkarte-eskola horrek, inguruko museoetara edo erreferentziazko kultura eta historia zentroetara egiten diran bisitak dagoz, sorkuntza artistiko prozesua indartzeko. Gaur egiten dan bisiteta eta datozen hilebeteetan Gerediagako eta Abellanedako egoitzetara egingo diran hurbilketak, Bizkaiko Batzar Nagusien inguruko prestakuntza prozesuaren barruan dagoz. Artistek euren artelanetan irudikatuko ditue lurraldeko batzarretako egoitzetan egindako ibilpidean ikasitakoa, eta irudietan erakutsiko dabe bizkaitar guztion ordezkartzeko eta partaidetzeko erakunde gorenaren garrantzia eta egitekoak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
21/03/2017

Las Juntas Generales colaboran con Bilbao Formarte en el desarrollo artístico de personas con discapacidad

Bilbao Formarte es un centro formativo que ofrece un programa de desarrollo personal a través de la creación artística para personas adultas con discapacidad psíquica e intelectual. Una veintena de alumnos y alumnas ha visitado hoy la Casa de Juntas de Gernika en el marco de un proceso creativo que concluirá en noviembre con la puesta en escena de una exposición en la sede administrativa de Bilbao. El hilo conductor de la muestra será plasmar en elementos iconográficos la importancia de las Juntas Generales de Bizkaia. El alumnado ha sido recibido por la presidenta de la Cámara Ana Otadui.

Bilbao Formarte trabaja principalmente en el terreno de las artes plásticas donde cada alumno o alumna puede desarrollar su propia obra, continuar su educación a través del arte y aumentar su creatividad. A través de diferentes actividades, proporcionan al estudiante un crecimiento y desarrollo tanto a nivel artístico como personal, que pretende favorecer su vida y su autonomía personal.

Entre estas actividades, esta asociación-escuela sin ánimo de lucro, incluye la visita a museos o centros culturales e históricos de referencia de su propio entorno para potenciar el proceso de creación artística. La visita de hoy, a la que se sumará también en los próximos meses un acercamiento a las sedes forales de Gerediaga y Abellaneda, se enmarca dentro de un proceso formativo sobre las Juntas Generales de Bizkaia. Los artistas plasmarán en obras lo aprendido en su recorrido por las sedes parlamentarias del territorio y traducirán en imágenes la importancia y funciones del órgano máximo de representación y participación popular de los vizcaínos y vizcaínas.